

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik eta behin, gure bezeroei zer zerbitzu eskainiko diegun zehaztu behar dugu, eta, horrela, gure enpresaren publizitatea zer publiko motatara zuzentzen duen jakin.

Enpresaren zati garrantzitsu bat marketina eta publizitatea dira. Ze publikora zerbitzua dagoen bideratuta dakigunez, publizitatearekin hasi beharko ginateke bezeroak erakartzeko. Hori egin liteke, adibidez, irekiera-eskaintzak eginez edo arreta deitzen duten iragarkiak eginez.

Ondoren, bezeroak mantentzeko, tratu bereziagoa eman dezakegu, gure enpresaren bezero izaten daramaten denboraren arabera. Adibidez, opari-txartelak, % 5eko deskontua hilero, eta abar.